

NOTA DE PRENSA

MERCABILBAOK ETA SLOW FOOD BILBAO-BIZKAIK LANKIDETZA-HITZARMENA ABIARAZI DUTE ELIKADURA-HEZIKETA SUSTATZEKO

- Mercabilbaoko presidenteorde Sabin Anuzitak eta Slowfood Bilbao-Bizkaia Elkarteko presidente Mariano Gómez-ek sinatu dute akordioa.
- Lankidetza honen bitartez, elikadura osasungarria sustatu, bertako elikadura-ondarea babestu eta ekoizleen eta kalitatezko produktuen balioa nabarmendu nahi da.
- Eskola-ikasleek elikadura-ohitura egokiak hartzea da Mercabilbaon antolatuko den “Ezagutzea, Jolastea, Sortzea, Elikatzea dibertigarria da” heziketa-programaren helburua.

Basauri, 2010eko maiatzak 20.- Mercabilbaok lankidetza-hitzarmena sinatu du Slow-Food Convivium Bilbao-Bizkaia Elkartearekin, eta horren bidez, ahalegin berezia egingo du eskola-ikasleen artean elikadura osasungarria sustatzeko.

Akordio honen bitartez, Mercabilbaok eta Slowfoodek bertako elikadura-ondarea babestu eta kalitatezko produktuen eta hauek lantzen dituzten ekoizleen balioa nabarmendu nahi dute. Bioaniztasuna, ingurumenarekiko errespetua eta nutrizio-ohitura osasungarrien aldeko kontzientziazioa eta elikadura-heziketa lantzea da sinatutako hitzarmenaren xedea. Ondorioz, eskola-ikasleei zuzendutako elikadurari buruzko heziketa-programa osagarriak antolatuko dira Mercabilbaoko prestakuntza-gelan.

Txikienei ezaguera eta arau osasungarriak hartzea

erraztuko dieten nutrizio eta kontsumo-ohiturak txertatzea da ekimen honen xedea, fruta eta barazkien kontsumoa ere sustatuz. Horrekin batera, elikadura orekatua zer den ezagutaraziko zaie, Slow Food Bilbao-Bizkaia mugimenduaren kontzeptuei jarraituz: garbia, osasuntsua eta bidezkoa.

Heziketa-tailerrak

Ohitura osasungarriak txiki-txikitan landu behar dira, haurtzaroan elikadura egokiaren aldeko jarrerak eta ezaguerak hartzeko dagoen erraztasunaz baliatuta.

Ildo horretan, Mercabilbaon, "Ezagutzea, Jolastea, Sortzea, Elikatzea dibertigarria da" izeneko programa antolatuko da. Ekimen honi esker, eskola-ikasleek eta irakasleek elikadura-ohiturak sustatzea xede duen etxean edo eskolan baliatzeko moduko metodo desberdin batez jabetzeko aukera izango dute. Bertan, landare-osagaiez egindako artelanen edota bertako produktuetarako etiketen moduko sorkuntza-esperientziak mamitu ahal izango dira.

"Gustuaren laborategiak" dira antolatutako beste ekimen bat, zentzumenak lantzeko tailerren bitartez produktuen kultura ezagutaraztea xede dutenak. Hauetan, frutak eta barazkiak oinarri dituzten produktu naturalak dastatzeko aukera dago.

UDALA • AYUNTAMIENTO

Prentsa Kabinetea - Gabinete de Prensa E. Erkoreka Plaza, z/b 48001
Bilbao

Tfn: 94 420 52 61 / 94 420 52 15 Faxe: 94 420 52 16 H. elek:
prensa@alcaldia.bilbao.net www.bilbao.net